



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko apirilaren 10a

32. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru Lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako segurtasun publikoari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da menpekotasuna duten pertsonentzako laguntzari buruzko liburu zuria taxutu dezan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Cardenal Ilundáin ikastetxean D ereduko lerro bat ireki dezan. Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da errehabilitazio psikosozialeko zentroetako langileen arloaren gaineko ikuskapen bat egin dezan eta adimeneko nahaste larria duten pertsonen laguntza emateko proiektua abian jartzean gertatu diren akatsak egiaztatu ditzan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Reina Sofia Ospitalean anbulantzia zerbitzua berma dezan, baita 22:00etatik aitzina ere. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aspace-Navarrarekin egin beharreko itunean gurasoek eta langileen ordezkariak ere parte har dezaten. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, energia iturri den aldetik, hidrogenoari buruzko ikerkuntza eta garapena susta dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Nafarroako Parlamentuaren adierazpen instituzionala, ETak su-etena eman izanari buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

- Galdera, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren oroitidazkiaren euskarazko edizioari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (10. or.).
- Galdera, Herri lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren 2005eko aurrekontuan transferentzia eta kreditu gehikuntza bidez egindako aldaketen zergatiari buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (10. or.).
- Galdera, garraioaren arloko prestakuntza jarduketan berrantolaketa, modernizazio eta laguntzari buruzko kontusailak murrizteari buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (11. or.).
- Galdera, eraikuntzako segurtasunari buruzko kontusaila murrizteko arrazoiei buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (12. or.).
- Galdera, telefono mugikorren bidez informazioa euskaraz ere jasotzeko aukerari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (12. or.).
- Galdera, zonalde mistoa handitzeko ikerketa soziolinguistikoari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Gobernuaren internet ataria euskaraz paratzeari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Producción Informática de Navarra enpresa publikoari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiarekin espetxe berria eraikitzekeo negoziazioei eta jarduketei buruzkoa, foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (14. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer asmo duen Parlamentuaren Osoko Bilkurak foru erkidegoaren egoerari buruzko eztabaidan onetsi zituen erabakiak –Espainiako II. Errepublikaren 75. urteurrena ospatzeko ekintzak antolatzea premiatzen zuena nahiz gainontzekoak– betetzeari buruzkoa, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak egina (15. or.).
- Galdera, legez kanpoko substantziak atzematearren Azagrako zenbait “piperotan” egindako sarekadari buruzkoa, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko goi karguek sozietate publikoen bileretara joateagatik jasotako dieta kopuruari buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko goi karguek sozietate publikoen bileretara joateagatik jaso ez duten dieta kopuruari buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko goi karguen dieten kontsignazio eta destinoari buruzkoa, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Nafarroan oinarrizko errenta jasotzen duten familiei eta gizarte bazterkerian bizi direnen gaineko zenbait auziri buruzkoa, foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigo andreak egina (18. or.).
- Galdera, Gobernuak Ehizari eta arrantzari buruzko Foru Legeko 24. artikulua egiten duen interpretazioari buruzkoa, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Nafarroako kooperatiba eta lan sozietateetan enplegua sustatu eta lehiakortasuna hobetzeko laguntzak emateko 2006ko deialdia onesten duen 700/2006 Ebazpenean administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa eskatzeari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Museoen Zerbitzuan aritzeko lau prestakuntza bekaren deialdia onetsi eta ebaluazio batzordea hautatzen duen 55/2006 Foru Aginduan administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa eskatzeari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (21. or.).
- Galdera, jakiteko ea noiz jakin zuen Presidente jaunak eratu zela –Epaitegiek eskaturik– irratien kontratazioarako mahaia 2006. urtean, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (22. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari buruzkoa.**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.-** Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2006ko apirilaren 21eko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua

2006ko martxoaren 20ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako segurtasun publikoari buruzkoa.**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.-** Nafarroako segurtasun publikoari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2006ko apirilaren 21eko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua

2006ko martxoaren 20ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da menpekotasuna duten pertsonentzako laguntzari buruzko liburu zuria taxutu dezan.**

*IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da menpekotasuna duten pertsonentzako laguntzari buruzko liburu zuria taxutu dezan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizateko kontseilariak eta Gizarte Gaietarako ministro Caldera jaunak berriki bilera egin dute menpekotasunari buruzko legearen aurreproiektuaz hitz egiteko. Bilera horren ondoren, zenbait gai argitzeko daude: Honako datu hauek hartu behar dira kontuan:

1.- Lege proiektu honek 15.000 nafarrengan izanen du eragina.

2.- Etorkizunean, menpekotasunari buruzko legea garatzeak urtero 50 milioi euro inguruko aurrekontu-finantzaketa gehigarria eska dezake.

3.- 2015ean, gutxi gorabehera, sistema guztiz ezarrita dagoenean, 1.500 lanpostu inguru sortuko direla kalkulatu da.

Orain arte Nafarroako Gobernuak iragarri duenaren ondoren, esan daiteke konpromisoa badagoela etorkizuneko legeak foru erkidegoan izanen dituen ondorio finantzarioak xehetasunekin aztertzeko.

Argi dago foru erkidegoak eskumenak badituela, Foru Hobetzean aitortuak, gizarte laguntzaren eta hirugarren adineko jendearentzako laguntzaren arloan. Hori dela eta, gobernu zentralak bultzatzen dituen politika orokor eta oinarritzakoak eta Nafarroaren politikak eta ekintzak koordinatu behar dira.

Une hauetan, oinarritzako dokumentu bat bada gizarte zerbitzuei buruzko lege bat egiteko. Dokumentu horretan, neurri batean, norberaren autonomia sustatzeari eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen laguntza emateari buruz etorkizunean egitekoa den foru legearen zenbait alderdi biltzen dira.

Nafarroako Gobernuak orain arte autoatseginkeriazko jarrera erakutsi du, esanez Nafarroan prestazioen maila Espainiako beste edozein tokitan baino altuagoa dela.

Egia esan, oraindik ere ez da ezer ere zehaztu bereizteko eta zehazteko zein prestazio izanen diren eskubide subjektiboa –horrenbestez, oinarritzakoak eta doakoak– eta zein sartuko diren zerbitzu orokorren kartera batean –beraz, aurrekontuaren arabera izanen dira–.

Horrenbestez, bide luzea gelditzen da Nafarroan gizarte zerbitzuei buruzko foru lege bat edo norberaren autonomia sustatzeari eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen laguntza emateari buruzko foru lege bat garatzeko eta haren norainokoa zehazteko.

Hori dela eta, Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean menpekotasuna dutenei laguntzeari buruzko liburu zuri bat egin dezan, eta bertan baloratu dezan menpekotasuna dutenei laguntzeko zerbitzu publikoak Nafarroan nola dauden.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du liburu zuri horrek bil dezan laguntzaren erabiltzaile izan daitezkeen pertsonen kopurua, bai eta zenbat lanpostu sortu beharko liritekeen geriatrico eta erizaintzako profesionalentzat, lanerako terapeutentzat eta laguntza integralerako behar diren gainerako langileentzat.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du menpekotasunei buruzko liburu zurian zehatz ditzan herritarrek administrazioari eskubide subjektibo, oinarrizko eta doako gisa exijitu ahal dizkioten prestazioak, bizimodu beregaina izateko beharrezkoak asetze aldera.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du menpekotasuna dutenei laguntzeko liburu zuriarekin batera 2007. urterako eta hurrengo urteetarako gastu proposamen bat aurkez dezan, menpekotasuna dutenei laguntzeko zerbitzu publikoak erabiltzeko egoeran dauden pertsonak kontuan hartuta.

Iruñean, 2006ko martxoaren 24an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Cardenal Ilundáin ikastetxean D ereduko lerro bat ireki dezan.**

### *EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Cardenal Ilundáin ikastetxean D ereduko lerro bat ireki dezan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, talde horren eleduna den aldetik, eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Nafarroako Gobernuko Eskolatzeko Batzordeak D ereduan hiru urteko ikasleentzako 75 toki eskaini ditu 2006-2007 ikasturterako; azken bi urte hauetako datu objektiboek, ordea, erakusten dute eredu horretan matrikulaturiko ikasleak ia ehun izan direla.

Gainera, funtsezkoa da eskariari egokituriko hezkuntza eskaintza egitea, eta dauzkagun datuekin nabarmena da aipatu eremuan eskaintza, argi eta garbi, handiagoa dela.

Era berean, ikusten dugu nola beste ikastetxe batzuetan hizkuntza ereduak batera dauden; beraz, normaltasunez jar liteke D eredu gurasoek aukera izan dezaten beren seme-alabak nahi duten aukeran matrikulatzeko, alferreko joan-etorriak egitera behartu gabe.

Horregatik guztiagatik, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Cardenal Ilundain Ikastetxe Publikoan D ereduko lerro bat jar dezan, eskariari aterabidea emateko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da errehabilitazio psikosozialeko zentroetako langileen arloaren gaineko ikuskapen bat egin dezan eta adimeneko nahaste larria duten pertsonen laguntza emateko proiektua abian jartzean gertatu diren akatsak egiaztatu ditzan.**

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da errehabilitazio psikosozialeko zentroetako langileen arloaren gaineko ikuskapen bat egin dezan eta adimeneko nahaste larria duten pertsonen laguntza emateko proiektua abian jartzean gertatu diren akatsak egiaztatu ditzan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Gizarte Ongizate Batzordean eztabaidatzeko.

2005eko urtarrilean, Gizarte Ongizate Batzordean adimeneko nahaste larria duten pertsonen laguntza emateko programa aurkeztu zen. Lehenagoko egoerarekiko aurrerapena zekarren egoera horrek, zeren eta idatziz jartzen baitziren programak, behar ziren tresnen sorrera eta definizioa, antolamendua, baliabideak sortzeko proposamena, programen ebaluazioa eta balorazio ekonomikoa.

2005eko azaroan, abian jarri ziren Iruña, Lizarra, Tutera eta Elizondoko errehabilitazio psikosozialeko zentroak, aldezturik ezarritako plantillean. Hala eta guztiz ere, bi hilabete eskas iragan direnean, zentro horietan langileen murrizketa larria egin da egun batetik bestera.

Parlamentu-talde honek dakiela, Gizarte Ongizate Departamentuak ez du bete adimeneko nahastea duten pertsonen laguntza emateko proposameneko "Kalitatea eta etengabeko hobekuntza" izenburuko XIII. atala, ez eta "Adierazleak" izeneko atala ere. Baliabide horien ikuskapena ez dagoenez indarreko arauetan jasota, honako erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du foru erkidegoan zabalik dauden errehabilitazio psikosozialeko zentroetan langileen arloko ikuskapen bat egin dezan eta adimeneko nahaste larria duten pertsonen laguntza emateko proiektua abian jartzean gertatu diren akatsak egiaztatu ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du errehabilitazio psikosozialeko zentroen adjudikazioa hartu duen enpresaren ikuskapen bat egin dezan eta azter dezan nola jokatu duen kontraturiko eta kaleraturiko langileekin, eta egiazta dezan kontratuei amaiera emateko garaiaren segurtasun juridikoaren neurri oinarrizkoenak ere bete ote diren.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behin eskatutako ikuskapena egin ondoren haren emaitzak Gizarte Ongizate Batzordeko kideei igor diezazkien.

Iruñean, 2006ko martxoaren 29an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Reina Sofía Ospitalean anbulantzia zerbitzua berma dezan, baita 22:00etatik aitzina ere.**

### **IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Reina Sofía Ospitalean anbulantzia zerbitzua berma dezan, baita 22:00etatik aitzina ere."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko.

Tuterako Reina Sofía Ospitalean anbulantzien zerbitzuak eginiko leku-aldatzeei buruzko galdera bati erantzunez, Nafarroako Gobernuak, 2006ko

martxoaren 9an, honakoa dio: "22:00etatik aurrera zerbitzua ospitalearen beraren irizpidearen arabera bermatuko da"

Parlamentu-talde hau ezin da ados egon informazio horrekin, zeren ez baitu ezer ere zehazten, eta ospitalearen zuhurtziarakotasunez jokatu nahiak eta bidegabeko aurrezkoa lortu nahiak gaixoa eta haren familia babesgabe uzten ditu.

Ez dakigu zerbitzuaren formula horretan, "ospitalearen irizpidearen arabera" alegia, baliabideen efizientzia eta eraginkortasuna kontuan hartzen diren. Edonola ere, ezin da onartu argiro ez arautzea 22:00etatik aurrera gaixoen leku-aldatzea nola bermatuko den.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Reina Sofía Ospitalean anbulantzia zerbitzua argi eta nahikotasunez berma dezan, baita 22:00etatik aurrera ere, ospitalearen irizpidearen pentzutan utzi gabe.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zehatz dezan zerbitzu hori 22:00etatik aurrera nork emanen duen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 29an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aspace-Navarrarekin egin beharreko itunean gurasoek eta langileen ordezkariak ere parte har dezaten.**

### **IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Aspace-Navarrarekin egin beharreko itunean gurasoek eta langileen ordezkariak ere parte har dezaten."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarrita-

koarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Gizarte Ongizate Batzordean eztabaidatzeko.

2005eko abenduaren 5ean eta 12an, Ramón y Cajal zentroko enpresa-batzordeak eskari bat aurkeztu zuen Gizarte Ongizatearen Departamentuko idazkaritza nagusi teknikoan; hartan, laugarren unitatearen itxiera ikuskatzea eskatu zen, eta ikuskatzea, era berean, pasillo bat, gertatzen zen erabiltzaile pilaketagatik eta eraikina husteko bide hori hartuta egoteagatik.

Halaber, 2005eko urriaren 26an, zentroko erabiltzaile baten ahaide batek eskabidea aurkeztu zuen idazkaritza nagusi tekniko beraren aurrean, eskatuz Aspacerekiko ituna betetzen ari ote zen ikertzeko. Langileek gauza bera eskatu zuten abenduaren 5ean.

Ikuskatzaileek eginiko bisitetan, zentroan une hartan zeuden langileen fitxen zerrenda hartu zen. Hamaika pertsona baino gehiago ez ziren beren lanetan ari 2005eko abenduaren 1ean. Abenduaren 20an, 10 pertsona falta ziren lantokian. Une hauetan, enpresak aurkeztutako dokumentazioa aztertzen jarraitzen dugu.

Dirudienez, Nafarroako Gobernua beste itun bat negoziatzen ari da Aspace-Navarra entitatearekin; hori dela eta, gure ustez, itun berriaren arduradunek kontuan hartu behar dituzte langileek eta ahaideek egindako salaketak. Aspaceren egungo zuzendaritzari kritika ugari egin zaizkio. Nahikoa da gogoratzea Comptos Ganberak eginiko gomen-dioa, Gizarte Ongizate Departamentuak kontuan hartu ez zuena.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Aspace-Navarra entitatearekin tramitatzen ari den itun berriari gurasoek eta langileen ordezkariak parte hartu dezaten, langileen ratioari dagokionez eta bizigarritasun eta zerbitzuak erabiltzeko baldintzei dagokienez ere kalitate maila nahikoa lortuko dela bermatze aldera.

Iruñean, 2006ko martxoaren 29an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, energia iturri den aldetik, hidrogenoari buruzko ikerkuntza eta garapena susta dezan.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da, energia iturri den aldetik, hidrogenoari buruzko ikerkuntza eta garapena susta dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara

dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin



**MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, energia iturria den aldetik, hidrogenoari buruzko ikerkuntza eta garapena susta ditzan.

Zioen azalpena:

Nafarroa aitzindaria izan da ordezko energia iturriak bilatzeko eta abian jartzeko orduan. Horren erakusgarri argia da azken hamarkadetan energia eolikoaren alde egin den apustua. Nafarroako errealtate energetikoaren ezaugarri nagusia dira lau- rogeiko hamarkadaren bukaeran eta lauogeita hamarreko hamarkadaren hasieran mamitu ziren apustu aitzindariak, foru erakundeen laguntza sutsuarekin eta pizgarriekin gauzatu zirenak.

Gaur egun, adituak ados daude esaterakoan aukera handiak daudela hidrogenoaren teknologiak datozen urteetan energia iturri garrantzitsua izateko. Mundu osoko enpresa-korporazioak, adituak eta ikerlariak, eta administrazio publiko ugari

ere bai, "hirugarren industria-iraultza" deitu izan denaz konturaturik, inbertsioak egiten ari dira eta erabakiak eta jarrerak ere hartzen ari dira.

Antzematen ari den "etorkizun" energetiko eta industrial delata eta, beharrezkoa da foru erakundeek, beste behin, epe ertain eta luzeko lan-lerro batzuk abian jartzea, Nafarroak eginkizun garrantzitsua izan dezan hidrogenoa ordezko energia iturria izateko sustapenean, ikerketan eta garapenean.

Mozioaren testua:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hidrogenoa ordezko energia iturria izateko ikerketa eta garapena bultzatzen. Horretarako, garapeneko plan zuzendari bat egiten du; bertan, gutxienez ere, I+G lerroak abian jarriko dira, enpresen ekimenak lagunduko dira, horrekin loturiko proiektuak garatzeko dira eta energia hori foru erkidegoan garatzeko batzorde koordinatzaile bat eratuko da.

Iruñean, 2006ko martxoaren 22an

Eleduna: Fernando Puras Gil

## **Nafarroako Parlamentuaren adierazpen instituzionala, ETAk su-etena eman izanari buruzkoa.**

### **ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, ondoko adierazpen politikoa onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak adierazi nahi du itxaropena duela ETAREN oraingo su-etenen ondoren berehala etorriko dela indarkeria eta estortsio modu orori benetan uko egitea; halaber, erakunde terrorista desegin dadin eta armak behin betiko utz ditzan exijitzen du, hain zuzen ere gizarte osoak denbora luzez eskatu duena.

2. Parlamentuak, nafar guztien ordezkaritza zilegia den aldetik, zuhertasun mezua helarazi nahi die herritarrei, eta beste behin berresten du haren erabakiak errespetatzeko eta terrorismoaren biktimei babesa emateko konpromisoa. Gaur iragarri den su-etena herritar guztien tankera demokratikoaren irabazpen gisa hartu behar dugu.

3. Parlamentuak ez du sekula onartuko nafarren borondatea ordeztea bere baitan prezio politi-

koak dakartzan inongo negoziazioarekin, eta exijitzen du Nafarroa ez dadin trukerako txanpon gisa erabili.

4. Parlamentuak alderdi politiko demokratiko guztien batasunerako deia egiten du, sineste osoa baitu erakundeek izan behar dutela ETAREN iragarpenaren ondorioz sor daitezkeen ekimen guztiak eztabaidatzeko organo eskudunak.

5. Gure ustez beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak guztiz bermatzea Nafarroak foru erkidego bereizi gisa duen proiektu politiko eta instituzionala, Foru Hobetzean jasota dagoena; hori dela eta, ez dugu onartzen Nafarroako Gobernua osatuta egotea proiektu hori bere egiten ez duten indar politikoekin, hau da, foru erkidegoa eta Nafarroako herriaren nortasun berekia desagerraraziz delako proiektua aldatu nahi duten indarrekin."

Iruñean, 2006ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren oroitidazkiaren euskarazko edizioari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren oroitidazkiaren euskarazko edizioari buruz foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Hezkuntza Batzordean ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurak, Aralar taldeko parlamentariak, Parlamentuko araudiari men eginez,

Hezkuntza Departamentuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiko 2003/2004ko oroitidazkia dela-eta, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dakion:

Zergatik igorri zaigu parlamentarioi gaztelania hutsean Hezkuntza Departamentuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiko 2003/2004ko oroitidazkia?

Egin al da euskarazko bertsiorik? Zergatik ez da egin gaztelaniazko bertsioarekin batera? Egin ez bada, ba al dago egiteko asmorik?

Iruñean, 2006ko martxoaren 28an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

**Galdera, Herri lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren 2005eko aurrekontuan transferentzia eta kreditu gehikuntza bidez egindako aldaketen zergatiari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren 2005eko aurrekontuan transferentzia eta kreditu gehikuntza bidez egindako aldaketen zergatiari buruz foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Herri Lan, Garraio eta

Komunikazio Batzordean ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak dagokion batzordean ahoz erantzun dezan.

Zioak:

2005eko bukaeran, kreditu transferentzien eta gehikuntzen bitartez, departamentuaren aurrekon-

tuetan hogeita lau milioi euro baino gehiagoko aldaketak egin ziren; hau da, urte horretarako ekitaldirako ezarritakoaren % 20 inguru.

Zergatik egin dira aldaketa horiek 2005eko aurrekontuan?

Iruñean, 2006ko martxoaren 30ean

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

---

**Galdera, garraioaren arloko prestakuntza jarduketan berrantolaketa, modernizazio eta laguntzari buruzko kontusailak murrizteari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea garraioaren arloko prestakuntza jarduketan berrantolaketa, modernizazio eta laguntzari buruzko kontusailak murrizteari buruz foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Herri lan, Garraio eta Komunikazio Batzordean ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak dagokion batzordean ahoz erantzun dezan.

Zioak:

2005eko bukaeran, kreditu transferentzien eta gehikuntzen bitartez, departamentuaren aurrekontuetan hogeita lau milioi euro baino gehiagoko aldaketak egin ziren; hau da, urte horretarako ekitaldirako ezarritakoaren % 20 inguru.

Zergatik gutxitu dira hainbeste garraioaren sektorea berregituratzeko eta modernizatzeko kontusailak, bai eta hartan egiten diren prestakuntza jarduerak laguntzeko kontusailak ere?

Iruñean, 2006ko martxoaren 30ean

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

## **Galdera, eraikuntzako segurtasunari buruzko kontusaila murrizteko arrazoiei buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea eraikuntzako segurtasunari buruzko kontusaila murrizteko arrazoiei buruz foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Herri lan, Garraio eta Komunikazio Batzordean ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José

Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak dagokion batzordean ahoz erantzun dezan.

Zioak:

2005eko bukaeran, kreditu transferentzien eta gehikuntzen bitartez, departamentuaren aurrekontuetan hogeita lau milioi euro baino gehiagoko aldaketak egin ziren; hau da, urte horretarako ekitaldirako ezarritakoaren % 20 inguru.

Zergatik gutxitu da eraikuntzaren arloko segurtasunerako kontusaila?

Iruñean, 2006ko martxoaren 30ean

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

## **Galdera, telefono mugikorraren bidez informazioa euskaraz ere jasotzeko aukerari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea telefono mugikorraren bidez informazioa euskaraz ere jasotzeko aukerari buruz foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurra, Aralar taldeko foru parlamentariak, Legebiltzarreko araudiak xeda-

tzen duenari men eginez, honako galdera egiten dio Nafarroako Gobernuari ahoz erantzun dakion:

2006ko martxoaren 29an Nafarroako Gobernuak telefono mugikorraren bidez informazioa jasotzeko aukera aurkeztu zuen. Telefónica Móviles enpresarekin egindako akordio baten bidez emanen da zerbitzu berri hau.

Euskaraz ere informazioa jasotzeko aukera izanen al du hiritar nafarrak, iparraldekoak zein hegoaldekoak?

Iruñean, 2006ko martxoaren 30ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

**Galdera, zonalde mistoa handitzeko ikerketa soziolinguistikoari buruzkoa.***FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea zonalde mistoa handitzeko ikerketa soziolinguistikoari buruz foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Hezkuntza Batzordean ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurra, Aralar taldeko foru parlamentariak, Legebiltzarreko araudiak xedatzen duenari men eginez, honako galdera egiten dio Nafarroako Gobernuari ahoz erantzun dakion Hezkuntza Batzordean:

Ari al da Nafarroako Gobernua ikerketa soziolinguistiko egiten zonalde mistoaren balizko handitzea aztertzeko, Parlamentuko Osoko Bilkurak onetsi zuenari jarraiki?

Zeintzuk dira eman diren pausoak?

Iruñean, 2006ko martxoaren 30ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

**Galdera, Gobernuaren internet ataria euskaraz paratzeari buruzkoa.***FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Gobernuaren internet ataria euskaraz paratzeari buruz foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Hezkuntza Batzordean ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurra, Aralar taldeko foru parlamentariak, Legebiltzarreko araudiak xedatzen duenari men eginez, honako galdera egiten dio Nafarroako Gobernuari ahoz erantzun dakion Hezkuntza Batzordean:

Zergatik ez du oraindik Gobernuak bere internet ataria euskaraz paratu?

Euskal zonaldeko euskaldunen eta zonalde mistoko euskaldunen hizkuntza eskubideak noiz beteko ditu Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2006ko martxoaren 30ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, Producción Informática de Navarra enpresa publikoari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Producción Informática de Navarra enpresa publikoari buruz foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikulua ezarritakoari

jarraikiz, Osoko Bilkurarako galdera hau aurkeztu dio Ekonomia eta Ogasun kontseilari Iribarren jaunari, eta tramitatzeko onar dezala eskatzen dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari:

“Producción Informática de Navarra, S.L.” enpresa publikoa sortu eta hari berez administrazioarenak diren eginbeharrak eta funtzioak esleitzeari buruz.

Hori horrela, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eskatzen diot aurreko galdera aurkeztutzat jo dezala eta behar bezala tramita dezala.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Galdera, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiarekin espetxe berria eraikitzeko negoziatioei eta jarduketei buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiarekin espetxe berria eraikitzeko negoziatioei eta jarduketei buruz foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

#### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikulua ezarritakoari

jarraikiz, Osoko Bilkurarako galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuak Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilari Caballero jaunari, eta tramitatzeko onar dezala eskatzen dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari.

Gaia: Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiarekin espetxe berria eraikitzeko negoziatioen egoerari eta jarduketei buruzkoa.

Hori horrela, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eskatzen diot aurreko galdera aurkeztutzat jo dezala eta behar bezala tramita dezala.

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

**Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer asmo duen Parlamentuaren Osoko Bilkurak foru erkidegoaren egoerari buruzko eztabaidan onetsi zituen erabakiak –Espainiako II. Errepublikaren 75. urteurrena ospatzeko ekintzak antolatzea premiatzen zuena nahiz gainontzekoak– betetzeari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak egindako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer asmo duen Parlamentuaren Osoko Bilkurak foru erkidegoaren egoerari buruzko eztabaidan onetsi zituen erabakiak –Espainiako II. Errepublikaren 75. urteurrena ospatzeko ekintzak antolatzea premiatzen zuena nahiz gainontzekoak– betetzeari buruz. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2005eko urriaren 14an, foru erkidegoaren egoerari

buruzko eztabaidan, onetsi zituen erabakietako batean, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu zuen 2006. urtean zehar Espainiako II. Errepublikaren 75. urteurrena ospatzeko ekintzak antola zitzaiz eta, partikularki, errepublika aldiaren historiari eta gaur egun izan dituen ondorioei buruzko ikerketa, ezagutza eta zabalkuntza susta zitzaiz, bereziki Nafarroari dagokionez.

Gure parlamentu-taldeko Miguel José Izu Belloso jaunak 2006ko martxoaren 23an egindako galdera bati Lehendakariari, Justizia eta Barne kontseilariak erantzun zion esanez Nafarroako Gobernuak “ez duela inongo erabakirik hartu, ez eta inongo programarik onetsi ere” Parlamentuaren aipatu ebazpenean premiatutako jarduketari buruz.

Nahi genuke Nafarroako Gobernuko lehendakariak azaltzea zein diren gobernuaren asmoak Nafarroako Parlamentuaren aipatu erabakia betetzeari dagokionez, bai eta foru erkidegoaren egoerari buruzko eztabaidan onetsitako gainerako erabakiei dagokienez ere.

Iruñean, 2006ko martxoaren 30ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

**Galdera, legez kanpoko substantziak atzematearren Azagrako zenbait “piperotan” egindako sarekadari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak egindako galdera, legez kanpoko substantziak atzematearren Azagrako zenbait “piperotan” egindako sarekadari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuteko.

Zioen azalpena:

2006ko martxoaren 3an, poliziak sarekada bat egin zuen Azagran legez kanpoko substantziak harrapatzeko. Foruzainak zenbait "piperotan" sartu ziren bortxaz eta gehiegizko indarra erabiliz, hartara zirrar handia eraginez haietan zeuden nerabe eta gazteengan. Operazio nabarmen horretan, haxix kopuru barregarria atzeman zen.

Polizia operazio horiek, gazteak kriminalizatzetik –hietetako gehienek jokamolde osasungarriak dauzkaten arren– eta Azagra herrian beharrik

gabeko alarma soziala eragiteaz gainera, agerian uzten dute gobernuak gai honetan jarraitu nahi duen estrategia okerra.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

– Zein irizpide izan zituen abiaburu operazioak?

– Zenbat foruzainek parte hartu zuten eta zenbat material erabili zuten?

– Zenbat kostatu zaio zergadunari operazio hau?

– Zein da foru gobernuak operazio horri buruz egiten duen balorazioa?

Iruñean, 2006ko martxoaren 10ean

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

---

**Galdera, Nafarroako Gobernuko goi karguek sozietate publikoen bileretara joateagatik jasotako dieta kopuruari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuko goi karguek sozietate publikoen bileretara joateagatik jasotako dieta kopuruari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan

José Lizarbe Baztán, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaion:

1-. Zenbat dieta sortzen dituzte Nafarroako Gobernuko goi kargudunek –izena zehaztuta– foru administrazio sozietate publiko eta erakunde autonomoetako bileretara joateagatik? Zehaztu bilera bakoitzaren egunak, 2003-01-01etik 2005-12-31ra bitarte. Galderaren edukian sartzen dira, aipatu bilerez gainera, sozietate edo erakunde horietan duten karguagatik hartzen dituzten diru kopuru guztiak.

Iruñean, 2006ko martxoaren 24an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán



## **Galdera, Nafarroako Gobernuko goi karguek sozietate publikoen bileretara joateagatik jaso ez duten dieta kopuruari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuko goi karguek sozietate publikoen bileretara joateagatik jaso ez duten dieta kopuruari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan

José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaion:

1-. Nafarroako Gobernuko goi kargudunek sortutako dietetatik, 2003-01-01etik 2005-12-31ra bitartean foru administrazioko sozietate publiko eta erakunde autonomoetako bileretara joateagatik, zenbat ez dituzte hartu? Galderaren edukian sartzan dira, aipatu bilerez gainera, sozietate edo erakunde horietan duten karguagatik hartzen dituzten diru kopuru guztiak.

Iruñean, 2006ko martxoaren 24an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

## **Galdera, Nafarroako Gobernuko goi karguen dieten kontsignazio eta destinoari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuko goi karguen dieten kontsignazio eta destinoari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera

hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaion:

1-. Nafarroako Gobernuko goi kargudunek sortu baino kobratzen ez dituzten dietak, 2003-01-01etik 2005-12-31ra bitartean foru administrazioko sozietate publiko eta erakunde autonomoetako bileretara joateagatik sortutakoak, zertara bideratzen dira eta aurrekontuetan zein leku edo oharpen dute? Zehaztu bai goi kargudunaren izena, bai sozietate publiko edo erakunde autonomoarena. Zehaztu, halaber, egunak, zenbatekoak eta kasuko aurrekontuak. Galderaren edukian sartzan dira, aipatu bilerez gainera, sozietate edo erakunde horietan duten karguagatik hartzen dituzten diru kopuru guztiak.

Iruñean, 2006ko martxoaren 24an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

## **Galdera, Nafarroan oinarrizko errenta jasotzen duten familiei eta gizarte bazterkerian bizi direnen gaineko zenbait auziri buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI AURELIA LUMBRERAS IÑIGO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigo andreak egindako galdera, Nafarroan oinarrizko errenta jasotzen duten familiei eta gizarte bazterkerian bizi direnen gaineko zenbait auziri buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau

aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– Zenbat familiek jaso zuten Nafarroan, 2005ean, oinarrizko errenta? Zenbateko errentak hartu zituzten? Udalez udal azaltzea nahi dugu.

– Zein prestakuntza ekintza egin dira Nafarroan, 2005ean, gizarte bazterkeriako egoeran dauden pertsonentzat? Zenbat pertsona sartu dira enpresa arruntetan?

– Nolako gizarte laguntza eman zaie 2005ean oinarrizko errenta jaso duten familiei? Nola dago osatuta laguntzako profesionalen taldea?

– Zenbat hazi da pobrezia moderatua Nafarroan 2005ean? Zer dela eta igo da? Zer da pobrezia moderatua Nafarroako Gobernuarentzat? Nafarroako zenbat pertsonak eta familiek pairatzen dute pobrezia moderatua?

Iruñean, 2006ko martxoaren 27an

Foru parlamentaria: Aurelia Lumbreras Iñigo

## **Galdera, Gobernuak Ehizari eta arrantzari buruzko Foru Legeko 24. artikuluz egiten duen interpretazioari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak egindako galdera, Gobernuak Ehizari eta arrantzari buruzko Foru Legeko 24. artikuluz egiten duen interpretazioari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko eledun José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko Foru Legeko 24. artikulua ezarri zuenez, jabetza pribatuko lurra dituen tokiko barrutia eratzeko, toki entitateak jabeen baimena beharko du.

Baimen hori lortzeko moduak arazoak sortu dizkio zenbait toki entitateri. Izan ere, batzuetan ez da ezagutzen zein diren lurzati batzuen jabeak; beste batzuetan, jabeak atzerrian bizi dira, eta haiak aurkitzea ez da erraza izaten.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

– Nafarroako Gobernuaren iritziz, nola bete behar da Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko Foru Legeko 24. artikulua? Jabe guzti-guztiek

sinatzea lortuz edo sinadura eman nahi ez dutenek hori adieraz dezaten epe bat emanez?

– Sinadura idatzia lortu behar dela jotzen bada, nola ebatziko dituzte udalek jabe ezezagunak edo atzerrian bizi diren jabeak dituzten lurzati-en kasuak?

Iruñean, 2006ko martxoaren 28an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

## **Galdera, Nafarroako kooperatiba eta lan sozietateetan enplegua sustatu eta lehiakortasuna hobetzeko laguntzak emateko 2006ko deialdia onesten duen 700/2006 Ebazpenean administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa eskatzeari buruzkoa.**

### *FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, Nafarroako kooperatiba eta lan sozietateetan enplegua sustatu eta lehiakortasuna hobetzeko laguntzak emateko 2006ko deialdia onesten duen 700/2006 Ebazpenean administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa eskatzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. artikulua aitortzen ditu herritarren eskubideak administrazio publikoekiko harremani dagokienez, eta horien artean, f) letran, ezartzen du “herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko kasuan kasuko prozedurari aplikatzen ez den agiritik, ezta horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiritik ere”. Xedapen hori admi-

nistrazio publiko guztiei aplikatzekoa den oinarriko legeriaren zati da eta, halaber, Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 9.4. artikuluan jaso da. “Herritarrek eskubidea dute kasuan kasuko prozedurari aplikatzekoak diren arauak ezartzen ez dituzten agiriak edo jadanik Foru Komunitateko administrazioaren esku daudenak ez aurkezteko. Horretarako, herritarrek agiria dagoen espedientea identifikatu ahal izanen dute, eta organo eskudunek ere eskatu ahal izanen diete interesdunei hori egin dezaten.”

Ikusita Foru Komunitateko administrazioak ez zituela zenbaitetan manu horiek errespetatzen, bereziki beken edo dirulaguntzen deialdietara aurkeztu diren herritarrei agiriak eskatzerakoan, parlamentari naizen aldetik zenbait ekimen aurkeztu ditut Legebiltzarrean. Nafarroako Parlamentuaren 2004ko irailaren 30eko Osoko Bilkuran, berriz, Gobernuari auzi horri buruz aurkeztutako jabeldura bat jorratu zen, eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak ondokoak adierazi zituen, Bilkura Egunkarian jasota dagoenaren arabera:

“Nire ustez, auzia oso argi dago, eta Gobernuaren izenean lehen hitz hauetatik hasita adierazi behar dizudana da Gobernuaren borondatea eta jarduna ezin dela besterik izan lege manu bat era eragingarrian betearazten jarraitzea baino, eta jarraitzea diot, lege manu hori, jabelduraren testuak dioen bezala, lege mailako araua baita, administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen arloan duen eskumen osoa baliatuta Estatuak emana, eta hor-

taz, administrazio publiko guztiek Espainia osoan bete beharrekoa.

Eta Nafarroako Gobernuaren borondatea denez administrazio-tramitazioa sinplifikatzea, administrazioa modernizatzea eta, horrenbestez, herritarrek administrazioaren aitzinean dituzten eskubide guztiak bermatzea, bai administrazioarekiko harremanetan bai euren artekoetan, eta modu eragingarrienean bermatzea eta betearaztea herritarrek duten eskubidea, kasuan kasuko prozedurari aplikatu dakizkiokkeen arauetan eskatzen ez den agiririk, ezta horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk ere ez aurkeztekoa, duela zenbait hilabete abiarazi zen, parlamentari horrek ondo dakien legez, idazkari teknikoak koordinatzeko batzorde bat, departamentuekin eta haien menpeko erakunde autonomoekin lanean ari dena administrazio publikoekiko harremanetan eta, jakina, Foru Komunitateko administrazioarekikoetan ere, legeek herritarrei aitortzen dizkieten eskubideak gogobetetze mailarik handienarekin betetzen direla lortzeko. Hortaz, nik uste dut argia eta nabarmena dela, ezin bestela izan, gure administrazioaren esparruan 35.f) artikulua xedatzen duena betetzen dela bermatzeko Gobernuak duen asmoa.”

Horrenbestez, xede horrekin, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legeko xedapenak zuzendu ditu; izan ere, onuradunek beren tributu-betebeharren ordaintetan egunean egotearen ziurtagiria (datu hori, noski, Foru Komunitateko administrazioak badu) aurkezteko betekizunaren ordez, haiegan egunean egoteko betekizuna ezarri da (9. artikuluko e) letra), eta, halaber, ezarri da ez dela eskatuko aipatutako betekizunak edo baldintzak betetzen direla frogatzen bada, baldintza horiek foru erkidegoko administrazioaren organoek ziurtatu beharrekoak badira edo egiaztagiriak haren esku badaude, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/1512004 Foru Legearen 9.4 artikuluan ezarritakoarekin bat (13. artikuluko 8. idatz-zatia).

2006ko martxoaren 22ko 35. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen otsailaren 28ko 700/2006 Ebazpena argitaratu zen. Haren bidez,

Nafarroako kooperatiba eta lan sozietateetan enplegua sustatu eta lehiakortasuna hobetzeko laguntzak emateko 2006ko deialdia onesten da. 7. oinarrian, “Eskabideekin batera aurkeztu beharreko agiriak” izenburukoan, interesdunei hurrengo agiriak aurkezteko eskatzen zaie: “Nafarroako Foru Komunitateko Lan Sozietateen erregistroko agiria, non agertuko baita lan sozietate gisa sailkatua” (1.b idatz-zatia), “Eskatzaileak zerga guztiak eta Gizarte Segurantzarekiko zor guztiak ordaindu dituela frogatzen duten agiriak” (1.e idatz-zatia), “Enplegurako Zerbitzu Publikoaren ziurtagiria, dirulaguntzaren xede den pertsonak lan eskatzaile gisa izena eman zueneko eguna eta izen-emate horren antzinatasuna frogatzen dituen (enplegu eskatzailearen txartela)” (2.1.c idatz-zatia), eta “Gizarteak bazterturik dauzkan langabeak izanez gero, egoera hori frogatzen duen ziurtagiria, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen txostenari jarraikiz emana” (2.1.k idatz-zatia). Aurreko guztietan, foru erkidegoko administrazioaren eskuetan dauden datuak kreditatzeko agiriak dira.

Ez du ematen deialdi horren aipatu xedapena aipatutako legeriari ez eta Lehendakartzia, Justizia eta Barne kontseilariak iragarritako asmoei egokitzeko zaizkien. Are harrigarriagoa da foru erkidegoko administrazioaren beste organo batzuek, beste deialdi edo laguntza batzuetan, zuzen betetzen dituztela aplikatzekoak diren araua, hain zuzen arestian aipatu duguna.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

Zergatik aipatu foru aginduan interesa duten herritarrei eskatzen zaie foru komunitateko administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa, azaroaren 26ko 30/1992 legearen 35. f) artikulua ezartzen duenaren urraketa agerikoa eginez?

Ba al dago horri buruzko irizpide bateraturik foru erkidegoko administrazioan, praktikan departamentu batzuetatik besteetara eskakizunak hainbeste alda ez daitezen?

Iruñean, 2006ko martxoaren 30ean

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

## **Galdera, Museoen Zerbitzuan aritzeko lau prestakuntza bekaren deialdia onetsi eta ebaluazio batzordea hautatzen duen 55/2006 Foru Aginduan administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa eskatzeari buruzkoa.**

*FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak egindako galdera, Museoen Zerbitzuan aritzeko lau prestakuntza bekaren deialdia onetsi eta ebaluazio batzordea hautatzen duen 55/2006 Foru Aginduan administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa eskatzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. artikulua aitortzen ditu herritarren eskubideak administrazio publikoekiko harremanei dagokienez, eta horien artean, f) letran, ezartzen du "herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko kasuan kasuko prozedurari aplika dakizkioken arauetan eskatzen ez den agiririk, ezta horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk ere". Xedapen hori administrazio publiko guztiei aplikatzekoa den oinarrizko legeriaren zati da eta, halaber, Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 9.4. artikuluan jaso da. "Herritarrek eskubidea dute kasuan kasuko prozedurari aplikatzekoak diren arauak ezartzen ez dituzten agiriak edo jadanik Foru Komunitateko administrazioaren esku daudenak ez aurkezteko. Horretarako, herritarrek agiria dagoen espedientea identifikatu ahal izanen dute, eta organo eskudunek ere eskatu ahal izanen diete interesdunei hori egin dezaten".

Ikusita Foru Komunitateko administrazioak ez zituela zenbaitetan manu horiek errespetatzen,

bereziki beken edo dirulaguntzen deialdietara aurkeztu diren herritarrei agiriak eskatzerakoan, parlamentari naizen aldetik zenbait ekimen aurkeztu ditut Legebiltzarrean. Nafarroako Parlamentuaren 2004ko irailaren 30eko Osoko Bilkuran, berriz, Gobernuari auzi horri buruz aurkeztutako jabeldura bat jorratu zen, eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak ondokoak adierazi zituen, Bilkura Egunkarian jasota dagoenaren arabera:

"Nire ustez, auzia oso argi dago, eta Gobernuaren izenean lehen hitz hauetatik hasita adierazi behar dizudana da Gobernuaren borondatea eta jarduna ezin dela besterik izan lege manu bat era eragingarrian betearazten jarraitzea baino, eta jarraitzea diot, lege manu hori, jabelduraren testuak dioten bezala, lege mailako araua baita, administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen arloan duen eskumen osoa baliatuta Estatuak emana, eta hortaz, administrazio publiko guztiek Espainia osoan bete beharrekoa.

Eta Nafarroako Gobernuaren borondatea denez administrazio-tramitazioa sinplifikatzea, administrazioa modernizatzea eta, horrenbestez, herritarrek administrazioaren aitzinean dituzten eskubide guztiak bermatzea, bai administrazioarekiko harremanetan bai euren artekoetan, eta modu eragingarrienean bermatzea eta betearaztea herritarrek duten eskubidea, kasuan kasuko prozedurari aplika dakizkioken arauetan eskatzen ez den agiririk, ezta horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk ere ez aurkeztekoa, duela zenbait hilabete abiarazi zen, parlamentari horrek ondo dakien legez, idazkari teknikoak koordinatzeko batzorde bat, departamentuekin eta haien menpeko erakunde autonomekin lanean ari dena administrazio publikoekiko harremanetan eta, jakina, Foru Komunitateko administrazioarekikoetan ere, legeek herritarrei aitortzen dizkieten eskubideak gogobetetze mailarik handienarekin betetzen direla lortzeko. Hortaz, nik uste dut argia eta nabarmena dela, ezin bestela izan, gure administrazioaren esparruan 35.f) artikulua xedatzen duena betetzen dela bermatzeko Gobernuak duen asmoa".

Horrenbestez, xede horrekin, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ekai-

naren 9ko 8/1997 Foru Legeko xedapenak zuzendu ditu; izan ere, onuradunek beren tributu-betebeharren ordaintetan egunean egotearen ziurtagiria (datu hori, noski, Foru Komunitateko administrazioak badu) aurkezteko betekizunaren ordez, haieran egunean egoteko betekizuna ezarri da (9. artikuluko e) letra), eta, halaber, ezarri da ez dela eskatuko aipatutako betekizunak edo baldintzak betetzen direla frogatzea, baldintza horiek foru erkidegoko administrazio organoek ziurtatu beharrekoak badaude edo egiaztagiriak haren esku badaude, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 9.4 artikuluan ezarritakoarekin bat (13. artikuluko 8. idatz-zatia).

2006ko martxoaren 29ko 38. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren martxoaren 1eko 55/2006 Foru Agindua argitaratu zen; haren bidez, Museoen Zerbitzuan aritzeko lau prestakuntza beka emateko deialdia onetsi eta ebaluazio batzordea hautatzen zen. Deialdiaren 11.3. oinarrian hau esaten da: "Jarduketan hasten denean, eta Nafarroako Ogasun Publikoko zergaduna bada, onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du zerga betebeharrak eguneraturik dituela egiaztatzeke, bai eta zinpeko aitortpen edo promesa, helburu bererako bestelako departamentu, adminis-

trazio edo erakunde publiko nahiz pribatuen laguntza publiko bateraezinek ez dela jasotzen ari frogatzeko".

Ez du ematen deialdi horren aipatu xedapena aipatutako legeriari ez eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak iragarritako asmoei egokitzeko zaizkienik. Are harrigarriagoa da Nafarroako Aldizkari Ofizialaren ale berean, dirulaguntza edo laguntzetarako beste deialdi batzuetan, zuzen betetzen direla aplikatzekoak diren araua, hain zuzen arestian aipatu duguna.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dugu:

Zergatik aipatu foru aginduan interesa duten herritarrei eskatzen zaie foru komunitateko administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa, azaroaren 26ko 30/1992 legearen 35. f) artikulua ezartzen duenaren urraketa agerikoa eginez?

Ba al dago horri buruzko irizpide bateraturik foru erkidegoko administrazioan, praktikan departamentu batzuetatik besteetara eskakizunak hainbeste alda ez daitezten?

Iruñean, 2006ko martxoaren 30ean

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

## **Galdera, jakiteko ea noiz jakin zuen Presidente jaunak eratu zela –Epaitegiek eskaturik– irratien kontrataziorako mahaia 2006. urtean.**

*FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, jakiteko ea noiz jakin zuen Presidente jaunak eratu zela –Epaitegiek eskaturik– irratien kontrataziorako mahaia 2006. urtean. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin


### **GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurra, Aralar taldeko foru parlamentariak, Legebiltzarreko araudiak xedatzen duenari men eginez, honako galdera egiten dio Nafarroako Gobernuko Presidenteari idatziz erantzun dakion:

Noiz jakin zuen Presidente jaunak eratu zela –Epaitegiek eskaturik– irratien kontrataziorako mahaia 2006. urtean?

Iruñean, 2006ko martxoaren 30ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

## HARPIDETZA ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonia* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,30 »	